

Hau ez dut behar

- Uuuffa, zer hotza!
- Kaixo, Xabi!
- Iepa, Boise!
- Zer, hotza, ezta?
- Uf, bai, bai! Gainera, arropa hau oso fina da!
- Armairuan aldaketa egin behar duzu: udako arropa kaxatan gorde, eta neguko arropa atera behar duzu.
- Bada, bai! Lagundu nahi didazu?
- Bai, noski!
- Arropa hau zertarako da?
- Gordetzeko.
- Eta hau?
- Lagunei oparitzeko.
- Zergatik?
- Ez dudalako behar; arropa hau ez dut erabiltzen!
- Ba saldu Interneten!
- Ez, saldu ez; arropa hau lagunentzat!
- Nola lagunentzat? Saldu Interneten, eta irabazi dirua!
- Ezetx, bada! Niri oparitzea gustatzen zait!
- Ba niri dirua irabaztea gustatzen zait. Kamiseta hau ez duzu janzten?
- Ez, txikia daukat. Hau Jonentzat.
- Eta alkandora hau? Loreduna, zer polita!
- Bai, baina bi daukat: hori eta hau. Eta hau politagoa da , ezta? Hori Beñatentzat!
- Bai. Aizu, eta praka motz hauek? Berri-berriak dira!
- Bai, baina ez ditut janzten! Praka motz asko daukat! Horiek lkerrentzat: asko gustatzen zaizkio praka hauek!
- Eta hau zer da?
- Tanga bat. Eta hori asko erabiltzen dut!
- Praka luze hauek?
- Horiek Oihanentzat.
- Kamiseta tirantedun hau?
- Hori Unairentzat!
- Zergatik?
- Zergatik? Asko gustatzen zaiolako besoa erakustea!
- Ados, bada, listo!
- Bada, bai! Zer ondo! Milesker, Boise!
- Zure lagunak pozik egongo dira!
- Zer, Boise?
- Hauek niretzat?